



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ERMUKO UDALAREN 2002-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Ermuko Udalaren 2002ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du. Halaber, fiskalizazio-gai izan dira Udal Erakunde Autonomoak (Kirolaren Udal Institutua eta Udal Euskaltegi Publikoa) eta udal sozietate publikoak (Ermuko Ondasun Higiezinaren Sustapena, SA eta Ermuaren Sustapen Ekonomikoa, SA).

Legezkontasunaren atalean, Udalaren beraren kontuari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzea dela eta, salbuespen batzuk egin dituela.

Langileriari dagokionez, HKEEk azaleratu du sindikatuekin lortutako erabakia betetzeko pentsioen sistema osagarri bat ezartzeko ordaindutako ordainsari osagarria, ez datorrela bat pentsio fondo eta planak arautzen dituen legediarekin. Gainera, ez dago kontrolbiderik Elkarkidetzara atxiki gabeko langile haiek fondoak aurreikusitako helburuetarako erabili dituztela egiaztatzeko. Bestetik, zerbitzu eginkizunetan funtzionario bat izendatu da sozietate publiko baten zuzendari kudeatzaile modura; prozedura hau, ordea, ez dago aurreikusita sozietateetako lanpostuetarako.

Legezkontasuna betetzeari dagokionez, salbuespenak dituen beste atal bat HKEEk aztertutako zenbait espedientetan administrazio kontratazioak osatzen duena da.

Salbuespen hauek Administrazio Publikoan ondasun eta zerbitzuen kontratazioan buru egin behar duten publizitate eta lehia printzipioak ez betetzeari dagozkio, ez baitira kontratazio prozedura egokiak erabili. Besteak beste aipatu dira, Emakumearen Etxea Eraikitze eskaintza bakarria egiteko eskaria egin izana, gutxienez hiru eskatu behar ziratekeenean, edo Lobiano Jauregia zaharberritu eta zabaltzeko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren okerreko erabilera, behin lehiaketa hutsik geratu zela eta kontratuaren jatorrizko betekizunak aldatu zirela.

HKEEk ere uste du gauzatu diren hainbat ondarezko eragiketetan, bi lursail erosi eta saltzea eta truke batean, ez dela horiek arautzen dituen legeria bete. Kasuetako batean



administrazio espedienterik gauzatu ez delako; beste batean espezetan egindako ordainketak zeudelako, obra baten exekuzioaren esleipen zuzena eragin zutenak eta hirugarrenean, ondasuna besterentzeko lehiaketa ez egin izateagatik eta, aurreko kasuan bezalaxe, obra baten exekuzioa kontraprestazioaren atal modura hartzeagatik.

Udal kontuei buruzko iritziaren atalean, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki islatzen dutela udal jarduera, nahiz hainbat doiketa egin zaizkien aurkeztutako datuei, diruzaintza gerakina 10,7 milioi euro ingurura ekarri dutenak, horietatik 9,7 berariazko gastuak finantzatzeko Gerakinari dagozkiola.

Finantzaren egoerari dagokionez, zorpetzea murrizteko gomendioa azaleratu da, tamaina bereko udalen batez bestekoaren gaineratik dagoena, nahiz inbertsioak finantzatzeko gaitasuna berma daitekeen helburu honekin sortzen den Gerakinaren bitartez.